

EUSKALERRIKO ZINEGOTZIEN BATZARRA

Otsaillaren seigarren eguna, egun pozgarria izan da euskaldun guztientzat eta benetako poza batez be abertzaleentzat: Ainbeste aitatzen izan da aspaldion, zergaitik edo agaitik, Euzkadi edo Euskalerrria, baiña beti izen orren barruan iru errialde, Bizkaia, Gipuzkoa ta Araba dirala eta Euskalerrria zazpi errialdek osotzen dabe (aspaldion sei dirala diñoie, Napparroa osoa bat lez artu ezkerro). Eta euskaldun guztion sendi aundi bat lez geure burua artzen

jakin, sei edo zazpi errialdeetako errikideen abotsa entzun barik? Ez egoan biderik abots ori entzuteko, euskaldun guztiak iñoiz be batzen ez ziralako, orretarako erakunderik ez egoalako. Gaurtik aurrera ezin esan olakorik: Or dago erakunde barria, euskaldun guztientzat dan erakundea.

Egia da batzar orretara ez dirala joan euren burua abertzale ikusten ez dabenak. Eta orreixek dira jokabide onen aurka agertzen diranak. Abertzale ez diranakaz, aberria

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

dogun ezkerro, bearrezko gauzea zan guztion erakunde baten alkartzea eta zeregin ori ezin bete izan dabe ez Jaur-laritzak, ez Aldundiak eta ez Errialdeetako batzarrak.

Baiña orain bai, Euskalerrri osokoa dan erakunde bat daukagu, otsaillaren 6n. egunean Iruña'n Euskalerrri osoko ziñegotzi alkartuak sortu dabena.

Ba-dakigu alkateen edo ziñegotzien batzar ori gure antxiñako ekanduetan ondo sustraitua dana, baiña aldakuntza bat dauka gaurko batzar onek: Euskalerrri osokoa dala, lenagokoak Errialde bakoitxean bertakoak ziran, ez iñoiz Euskalerrri osokoak. Aldakuntza ori errez onartzekoa da. Guztiok gara euskaldunak, erri bat, eta guztiok bear dogu errian sustraiak dauzan agintaritzta bat.

Orrez gaiñera aspaldion bakerako bideak artzen diardugu eta benetako bakea nai dogu, gure Erriaren arazo mingarria zuzendu ta bideratuko dauan bakea. Baiña zelan egin benetako bakea Erria erri lez artu eta beraren barruko guraria bete barik? Eta zelan Euskalerrri osoaren guraria

maite ez dabenakaz, ezin osotu aberriaren erakundea. Alderdi guztietakoak maitatu bear dabe Euskalerrria eta gero sortzen dan erakunde orren barruan artuko dira erabagiak aurrerantzean nondik nora jokatu jakiteko.

Erakunde barria or dago, itxaropenerako bide bat ba, bakerako urrats bat, ez daigun galdu aukera au, egin daigun benetako bakea.

OLAZAR' tar MARTIN' ek

